

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023/10/02tik 2024/09/29ra)

44. astea (2023/10/30-2023/11/05)

COVID-19aren intzidentzia beherantz doa eta gripearen aktibitatea aurreko asteko balioen antzekoetan mantendu da. Bronkiolitisaren intzidentziak eta ABSren detekzioek goranzko joera argia erakusten dute.


- Aste honek jaiegun bat dauka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotako datuetan.
- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 270,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (298,6/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak gora egin du aste honetan. Bronkiolitisaren tasak goranzko joera mantendu du, jaieguna gorabehera.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 25 lagin jagoleen % 44,0 baieztatu da, 2 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 12,0) eta ABS bat (positibotasuna % 4,0) atzeman direlarik. 6 errinobirus ere detektatu dira (positibotasuna % 24,0).
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 10,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (9,6/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 85 SARS-CoV-2, 27 gripe-birus eta 46 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen esker, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 270,1 kasukoa izan da (298,6/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 223,2/100.000 izan da Araban, 269,6/100.000 Bizkaian eta 292,6/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 2138,9 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 404,7 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 15 urtetik beherako adin-taldeetan.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI gehienetan aurreko astearekin alderatuta.


AIaren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 44. astea	Tasa 43. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	242,7	284,5	0,85 (0,77-0,94)
Arabar Errioxako ESI	400,5	460,1	0,87 (0,59-1,29)
Barakaldo-Sestaoko ESI	248,0	240,1	1,03 (0,88-1,21)
Barrualde-Galdakaoko ESI	283,7	318,8	0,89 (0,81-0,97)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	273,7	331,1	0,83 (0,76-0,90)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	267,6	332,4	0,81 (0,71-0,91)
Uribeko ESI	237,1	243,1	0,98 (0,86-1,10)
Bidasoako ESI	189,5	228,4	0,83 (0,67-1,03)
Debararrenako ESI	266,5	313,9	0,85 (0,70-1,03)
Debagoienako ESI	248,6	233,0	1,07 (0,85-1,33)
Donostialdeako ESI	267,8	291,0	0,92 (0,84-1,00)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	376,2	339,6	1,11 (0,95-1,29)
Tolosaldeako ESI	421,6	395,1	1,07 (0,90-1,27)

Gripe-sindromearen tasa aste honetan 3,8 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (2,8/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) goranzko joera mantendu eta 495,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (343,2/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 25 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 44,0 baieztatu dira. 3 SARS-CoV-2 eta ABS bat atzeman dira. 6 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Aste honetan ez da gripe-birusik atzeman, SARS-CoV-2aren positibotasuna % 12,0an kokatu da (% 5,3 aurreko astean) eta ABSrena % 4,0ra jaitsi da (% 10,5 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 24,0koa izan da (% 39,5 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	44. astea		43. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	2	1,2
SARS-CoV-2	3	12,0	2	5,3	15	9,3
ABS	1	4,0	4	10,5	9	5,6
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	2	8,0	3	7,9	8	5,0
Adenobirus	1	4,0	0	0,0	2	1,2
Errinobirus	6	24,0	15	39,5	57	35,4
Urtaroko CoV	1	4,0	0	0,0	1	0,6

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 10,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (9,6/100.000 aurreko astean), 8,3/100.000 emakumeetan eta 13,2/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 5 urtetik beherakoen adin-taldean eman da, 46,3 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 28,8 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5 urtetik beherakoetan eta 44 urtetik gorakoetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi biologikoen emaitzak erakusten dira. Aste honetan, SARS-CoV-2ren positibotasunak behera egin du (% 8,8) eta gripe-birusarenak gora (% 6,1). ABSren positibotasunak goranzko joera argia mantendu du azken lau asteetan, 41. asteako % 1,0tik aste honetako % 19,5eko positibotasunera igaro delarik. Errinobirusaren positibotasuna % 27,1ean kokatu da (% 15,6 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	44. astea		43. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	159	8,8	160	12,5	899	15,8
Influenza	148	6,1	135	3,0	724	4,7
ABS	118	19,5	101	13,9	537	8,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Mikrobiologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 85 SARS-CoV-2, 27 gripe-birus eta 46 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 27 gripe-birusetatik, 18 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, bat A(H3) eta 8 A(H1)pdm09. 2023/40 astetik 162 detekzio erregistratu dira, 159 (% 98,1) A motakoak eta 3 (% 1,9) B motakoak. Azpitipatutako A motako 26 birusetatik, 2 (% 7,7) A(H3) eta 24 (% 92,3) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, irailean, PCR bidez aztertutako SARS-CoV-2ren lagin positiboen % 31,5 sekuentziatu dira. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak EG.5.1 (% 25,2), XBB.1.5 (% 14,3), JD.1.1 (% 8,1), XBB.1.16 (% 5,2) eta BA.2.86 (% 4,3) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 44. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 8,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,1/100.000 aurreko astean); 9,0 gizonetan eta 7,9 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 30 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (42 ospitaleratu aurreko astean), 21 gizon eta 9 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 90,0 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 44. astean, COVID-19 4 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (10 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 3 izan da, aurreko astean baino 6 gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2023ko azaroaren 8an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**